

## Zertarako irakurri idatzi dezakezunean

Badirudi gero eta nabarmenagoa dela irakurtzen ez duenaren idazlearen kasua

JON KORTAZAR

Hiru gertakari berezi eka- rri nahi nituzke gure orrialde hauetara. Hirurak dute zerikusi estua irakurtzearekin eta idazketarekin. Badirudi gero eta nabarmenagoa dela irakurtzen ez duenaren idazlearen kasua.

### Ikerlari eta idazle

Lehen gertakaria aldizkari akademiko nagusi baten suertatu zen. Aldizkaria nagusia izan arren, eta Espainiako argitaletxe nagusi baten menpe izan eta beraz etorkizuna neurri batean ziurtatua, akademikoa ere bada, ez da kioskoetan saltzen eta harpidetza du diru iturri nagusi. Kontua da demagun

2023an urtean plazaratzen dituen 11 aleetan 80 irakasleek hartu zutela parte. 80 ikerlari haien lana ezagutarazteko aukera eman zuela aldizkariak.

Zuzendariari otu zitzaion 80 horiei idaztea eta aldizkariaren harpidetza betetzea. Erantzuna harrigarria izan zen. Gutxi batzuk bete zuten eskaria eta harpidetu ziren. Beste guztiek, bistan da, nahiago dute idatzi, eta berea ez dena zertarako irakurri!

### Idazlearen txapela buruan eta ibili munduan

Bigarrena hurbilagoa dut. Badut adiskide bat literatur aldizkari batera bere ipuinak bidaltze di-

tuena argitaratu diezazkioten. Aldizkari horren zenbaki atera berria heldu zitzaidan etxera – harpidetua bainago- eta bere ipuina agertu zutela pentsatuz, bere etxera hurbildu nintzen. Ez dakit zein zela kausa, ale horretan ez zioten ipuinik argitaratu. Dena dela, alea utzi nahi izan zion, irakur zezan. Eta nire harridurako itzuli egin zidan: «Nirerik ez badago ez dut interesik» esanaz. Idazle horrek ere nahiago du idatzi, eta berea ez dena zertarako irakurri!

Hirugarrena metroan gertatu zitzaidan. Nire aurrean eta inondik inora ezagutzen ez nuen liburu batekin zihon

neskatxak irribarre egin zidan eta eskuetan zuen liburua seinalatuz esan zidan: «Nirea da, nik idatzia». Meritua laudatu nion eta ihardetsi zuen: «Besteena irakurtzeaz aspertu nintzen, eta nirea esatea eta idaztea erabaki nuen». Berak egiten zuen prozesu osoa: makinaz idatzi originala, inprenta batera eraman, argitalpena ordaindu eta berak irakurri. Ez dakit, baina, beste irakurlerik ote zuen bere literatura errimen lan horrek. Jainkoari eskerrak ez zekiela liburuei buruz idazten dudala, bestela ziur bere liburuak besapean nituela etxeratuko gau hartan.

Gogoratu nuen Carlos Casares idazle galiziarak Ourenseko gizon xeble bati buruz kontatzen zuena. Ba omen zuen gizon berezi horrek ohitura bitxi bat. Kazeta bat sortu zuen, berak idazten zuen oso osorik, ale bakarra inprimatzen zuen gauz bere inprimategian. Eta goizean etxetik irteterakoan atepetik sartzen omen zuen gauz osaturiko egunkari

ale hori. Kafea hartzetik itzuli eta atea zabaltzerakoan zolan aurkitzen omen zuen alea kazeta berriaren usain gozoz inguratutik eta egunkaria altxatzerakoan ahopeka esaten omen zuen: «Ikus dezagun zer berri dakarkigun egunkariak gaur!!!»

### Bikoitzasuna bat eginda

Izaki bikoitza zen gizon hori. Eta nire ustez izaki bikoitza da idazlea. Era berean idazle eta irakurle izan behar du. Ez dakit zer gertatu den gure gizartean, baina gertakari hauek, irakurle izan nahi ez eta idazle izate nahi horrek gizartean nabari den nitasunaren indar paregaberen ondorioa dirudi. Idazle estimatuek badakite irakurri behar dutela, badakite komunitate baten kide direla. Zerbait interesgarria sortu nahi badute, lehenagotik eginda dagoen zerbait egin nahi ez badute, errepikakorrak izan nahi ez badute, jakin dakite behar beharrezkoa dutela inguruan egiten dena, idazten dena, ezagutzea, irakurtzea ezinbestekoa delako idazteko.



## Eman hegoak euskarari



## Gurasoek nahitaez irakurri beharreko liburua

AIORA SAMPEDRO

Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkanoren 'Nerabeen garrasia. Osasun mentala aldaketa garaian' saiakerak dagoeneko bigarren edizioa argitaratzea lortu du eta irakurleen arreta erakarri izana erabat justifikatua dago barnean lortuko duenarekin. Liburuak bi plano arakaten dituela esango nuke, beti ere nerabeen nortasun jarrita arreta, batetik, osasun mentalari eta hura zaintzeko baliabideei heltzen die eta bestetik, sare sozialen eta IKTen erabilera goiztiarraren arriskuak azaldu eta haiei kontra egiteko baliabideak azaltzen dituzte. Horretarako, liburua bi atalean dago banatua. Lehen atalean, nerabeen osasun mentala arakatu eta gaur egun sortzen diren arazo nagusiak azaltzen dituzte neuropsikologia baliatuz (autoestimua arazoak, depresioa, antsietatea, hizkuntza edo sormen kognizio

arazoak...) eta alderdi horretan, sare sozialek haien arrakasta lortzeko darabiltzaten teknikak aletzen dituzte. Kapitulu honen ekarpenik interesgarriena fusio horretatik eratortzen da, izan ere, sare sozialek erabiltzaileen adikzioa lortzeko teknikak darabiltzate azaltzen dute egileek eta horiek, ezagunak zaizkigun beste adikzio batzuek erabiltzen dituzten mekanismo kognitiboekin bat datoze erakusten dute, hala nola, drogak edo apustuek nahiz jokoak eragiten duten dopamina nahasmenduen antzeko diseinua dutela argitzen dute. Bigarren atalean, sare sozialen arrisku psikologiko eta kognitiboen berri eman ostean, haiei aurre egiteko teknikak zerrendatzen dituzte, bai IKTek eskaintzen dituztenak,

bai guraso edo gizarteak eskaini ditzakeenak.

Aurrekoak erakusten du bi egileen formazioa zabala dela, hezkuntzan, psikoterapian nahiz neurozientzian, baina azalpenen indarra haien zientifikotasunetik baina, haiek irakurle arruntari adibideen bidez helarazteko duten gaitasunari dagokio. Azaldu nahi dena jakinarazteko egunerokotasuneko gertakarietako alderaketak egiten dira edota esperimientuen berri ematen da eta testua gustura irakurtzen da.

### NERABEEN GARRASIA...

Telmo Lazkano eta Maitane Ormazabal  
Ed.: Alberdania,  
21,50 euro. 246 orr



## Berdintasunetik urrun

ARANTXA URRETABIZKAIA



Honezkerok izango duzu, irakurle, Frantziako herri batean Gisèle Pelicot izeneko emakumeari senarrak egin zion zionaren berri. Senarrak drogatuta egiten zuen hirurogeitik gorako emaztea eta interneten eskaintzen zuen konorterik gabe zegoen emakumea, bezeroek bortxa zezaten. Bezeroik gazteenak 26 urte, zaharrenak, 74. Bortxatzaileek era guztietako lanbideak zituzten: zinegotzi, suhiltzaile, erizain, informatiko, kazetari... Poliziak ez omen daki zenbat bezero izan zituen senar kriminalak, baina gutxienez 51ri jarri dizkie izen-abizenak.

Galdetuko bagenie bezero nazkagarri horiei zertan sinesten duten, gehienek lehenik jainkoa aipatuko lukete, xehetasun gehiagorik gabe. Ondoren, «liberté, égalité, fraternité» esango lukete seguruenik, gai bat buruz ikasi bai, baina hitzen azpiko mamia bereganatu ez duen ikaslearen moduan, loro baten gisa.

Askatasuna (¡carajo!), nor berea egin

dezan, nahi duena, gutziarik zikinena barne. Berdintasuna gizonei dagokienez, total, bortxatutako gorputzaren jabe omen zen gizonaren baimen ordainduarekin egin zuten egin zutena, agian guztiek prezio berean. Senidetasuna baino gehiago anaitasuna, gizonen arteko gaizkidetasun santuaren babesean. «Emaztea zuen eta horrek emaztearen gorputzarekin nahi duena egiteko esku-bidea ematen dio», esan omen zuen bezero batek, poliziaren aurrean.

Gauza bat da dotrina hitzez hitz errepikatzen gauza izatea eta oso beste bat hitz horien esanahia barneratzea eta ekintzetara eramatea, salbuespenik gabe. Inor gutxik ukatuko du gurean, hitzetan, gizon eta emakumeon arteko eskubide berdintasuna. Praktikan, ordea, ez da berdintasun hori inolaz ere gauzatzen. Ados, okerrago egon gara, hobera goaz. Baina hainbeste falta zaigu...

«Gure ekintza izan dadila gure hitzaren alaba» idatzi zuen Arestik eta Natxo de Felipek kantatu.

## SALDUENAK

### FIKZIOA

- 1 **Maitasun kapitala** Karmele Jaio. Elkar
- 2 **Mundu zitalaren kontra** Begoña Lizar. Elkar
- 3 **Gurpilak** Eztizen Artola. Txalaparta
- 4 **Miñan** Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

### EZ FIKZIOA

- 1 **Mandamentu hipermodernoak** Iñigo Martinez. Elkar
- 2 **Elkanoren herriari bueltaka** Ander Izagirre. Libros del K.O.
- 3 **Nazionalismoaren alde eta aurka** Joxe Manuel Odriozola. Elkar
- 4 **Josefa, neskame** Alaitz Melgar. Elkar